

## Bihar Euskararen Eguna Zumarraga-Urretxun

Zein izan daiteke era hone-tako egun baten helburua? Egun batez euskara aiazkitzat erabiliz berorren apologia egi-tea? Urtean zehar egun bat ge-hiagor euskararen inguruan festa giro bat sortzea? Eta ur-tean zehar zer?

Ez genuke puk kurpil zoro horretan erori nahi. Guretat, egun horren, aurtien lehenen-goz eta aurrerantzean behar den bainat aldez egiteko as-motan helburua argia da:

1.- Zumarraga-Urretxuko eus-kal kontzientziari susperragrit-tasan bat eskaintzea.

- Euskara hizkuntza bizia den legez, bizi dela, eta, geroz eta indartuago bizi egin behar duela.

- Normalizazioa ezinbestez-koa dela berorren biziaraupene-rako

- Herr batetan diharduten erakund: orok duela euskera-rekiko betebeharrak atzerazi-eko eta ezinbestezko bat

- Hizkuntzak, eskubide indi-biduala izaterik lurralde eska-bide izatera iragan behar duela.

- Herri bai osatzen dugun guztiok dugula eginkizun hor-retan. Euskara gure hizkuntza normalizatu bihurtze horretan, zereginik eta gainontzeko guz-tia galbidea jorratzea baizik ez dela.

2.- Indarrean dagoen legedia maila guztietan beteia izan dadin eskatzea eta areago, exi-gitzea.

- Udaletxe mailan, euskara, bere barne nahiz kanpo fun-ziönamenduan euskarari behar bezalako tratamendua ematea ezinbestezko den neur-rarian, ehen mailako erreibin-dikazio da. Normalizazioa honek, aurrez euskararen *diag-nostikoa* eta ondoriozko *plani-fikazio* zehatza eskatzen da. Baina horretarako horretan ihar-dungo duen langilegoa, dagok on lokale, bulego eta guzti, beharrezko da eta hori, gaur oraindik egiteko dagoen



Bestetan bezalaxe Zumarraga-Urretxun oraindik ere euskararen alde oihu egin behar.

zerbait denez, horra zeri heldu beharko litzaiokeen. Udaletxe biek, behin betikoz serioz har dezaten euskararen normaliza-zioa bultzatzea.

- Euskararen presentzia erreala kale eta leku publiko orotan egia bihur dadineko pausoak eta neurriak erabi-kiak izan daitezten exigitzea. Edonork edonon euskaraz bizi izatea posible izan dadin exi-gitzea alegia.

3.- Herrian, euskararekin no-labaiteko zerkusia duten era-kunde nahiz elkarte orenen *kordinazio minimo* baten anto-lamendua bultzatzea. Zergatik hau? Bada, aski garbi dago: Hizkuntza bat ez da zatikako errealitate bat, hau da, ikaste-txetean erakustea, edo eskal-tegi, gaueskola nahiz akade-miarian erakustea oso ondo dago, euskaraz kaleizenak jar-tzea ere bai; beste horrenbeste errezebio eta oharretan elebidu-nezko txartel eta ereduak in-primatzea; bertsolari nahiz an-tzeko jaialdiren bat noiz behin antolatzea... baina derrigo-rrezko dena guzti horren elkar-tze puntua iristea da, hau da, goblaltasun, osotasun baten egituraz jabetzea. Euskararen irakaskintzak derrigorrezko, hauxe du: euskararen erabi-lera, behar arrunt, normal eta

eguneroko bihurtzea, eta alde-rantiz, erabilkerak irakaskin-tzaren beharra du. Hitz gutxi-tan *normalizazioaren* muina hortan deskriba liteke.

Laburtuz, behin betikoz, Zu-marraga-Urretxuko herrietan euskararen arnas herritzeari ekiteko dagoen beharraz bizi-tanlegoa oharretaz; erakunde ofizial eta publiko orori plani-fikazio bat eta horren arabe-rako neurriak eta baliobideak har eta erabil dituzan exigi; normalizazio plangintza batek exigitzen duen estamentu kor-dinazioa bultzatzea, eta norbana-koak duen eginkizun konkre-tuaz jabe eraz.

Guzti hau eginkizun dago, eta indarrean dagoen legediak exijitzen dituen minimoak ere ez dira betetzen. Hau lotsaga-ria! Ez ote zaio, zaizu, zaigu aurpegia gorritz lehertzen!! Guztia hitzetan gera ez dadin eta ahaleginak egiteko prest le-gokeen guztiei Zuek atea ala-denik aldez irekitzen dizue. Zuek salakuntza hutsean eta betiko leloan ez luke geratu nahi, aurrera jo nahi luke, eta horretarako giza baliobide eta fisikoak eskuratzea beharko di-tugu. Beraz, euskararen eguna prozesu baten abiapuntu izan dadin ahaleginduko gara!!

ZUEK

## Biharko egitaraua

Urretxu-Zumarragako euskal-zaile jendea gogotik saiatu da bihurtariko euskararen eguna hartu eta ederrenea gerta dadin, horretarako programina bi-kaina prestatuz. Ondoko le-rtrotoan ikuriko dute berakoe-k eta bestera egin nahi duten in-guruko guztiek zer manifestazio-errei indikapen, haur-jolas, bazkari-afari eta abar izan diren, guztiak euskararen alderetan.

Hasteko, goizeko bederatzietatik aurrerantzean arte edo, txarretatik eta kartelak ezarriko dira. Urretxu-Zumarragako hona: parietal eta zoko guztietan. Bi herrietako neska-mutil-ek egin aitzate kartelak eta beronek saiatuko dira nahi eta hemen jarzen. Kartel horien gain era eskotakoa da, baina guzti guztirik euskaraz. Edertan-tan derra, azalduko dute her-riek beren z. biharko egunean. Herri ikurrik diena, arosan, beren parietal agertuko baitara zurriz jantzia

Himnirik aldera, ikaste-

txetako neska-mutilen mani-festazioa. Kalean barrena bane-tetik bestera ibiliko dira kanta kantari, guztiak euskararen alde kantuz sa eta gar. Umeek-in batera helduak ere mani-festa daitezke, noski.

Kantutik bakarrik inor gutxi bizi dela eta, ordubatik aldera umeen bazkaria. Bakoitzak bere ikastetxean jango du. Ho-rretarako bakoitzak bere pus-kalehorra eramango du, bestela jai izango baitu. Oso eguraldi ona egiten badu, ikas-txetik kanpora beste nonahi ere tripa-zorriak asetzeko au-keria izango da.

Bazkalondoa, hiru terdiak aldera, jokoak edo, orain esat-en den bezala, haur jolasak. Eskolaurtekoen, erdi zirkloan direnen eta goi zirkloan dihardutuen artean izango da na-hiko joko, josteta eta zilipurdi. Best leku diferentetan joku-tuko dira jolasok.

Orain arteko guztia umeen-tzat antolatutakoa izan bada

ere, eguzkia mendien gainetik izkutatzeko hasiko denean, haundien txanda. Arratsaldeko zarpian aldera, Urretxuko frontoan, jaialdia: «Irrintzi» eta «Lurra» dantza taldeen saioa, Mendiaraz anaiak txala-parta jotzen, bertsolariak etab.

Gero, zortzi terdietatik be-deratzi terdiak arte edo, mani-festazioa, kalejira gisa, txar-ranga eta txistulariekin. Manifestazio hau, jakina, zen-bait erreibindikapen egiteko izango da. AFKerriko jokabi-deak azalduko dira, euskal es-kola publikoaren beharra, Udaletxean Euskara Batzorde baten premia oihuztatuko da, eta beste erreibindikazio asko.

Bukatzeo, bederatzi terdie-tan, euskal afaria Urretxuko frontoan. Nor berak eraman beza bere puska. Hortxe izango dira txistulariak, txar-ranga, bertsolariak eta nahi den guztia. Ondoren, egunen-tira arte nahi den guztia euska-raren alde.

### Euskararen Egunaren ondoren

## Herri-Urrats

Ospatu (eta borrokatu) be-rria da Euskal Herri osoan EUSKARAREN EGUNA maiatzaren 3an: Iparraldean, ordea, ez da egiterik izan, aurtengoz. Baina heldu den 12an ospatuko da HERRI-URRATS 2. Ikastolen eguna. Senperen. Euskararen Eguna-ren jarraipena nolabait, ho-rixe izan nahi bait zuen Egun horrek funtsean: ondoren eto-rriko diren euskararen aldeko mobilizazio-egunen abiapun-tua.

Euskarak batzen gaitu eus-kaldunok. Ipar et Hego, esta-tek ezarritako mugen eta za-tiketa politiko-administratibo-aren gainetik. Horregatik, Euskararen Eguna bezalaxe, HERRI-URRATS ere euskaldunona da.

EKB-k kaleratu berria duen Euskararen Plangintza-rako oinarriak dossierrean euskal herri osoaren batasuna ipintzen du plangintza ego-kiaren abiaburuetako bat: «Euskararen normalizatzeko plangintzak Euskal Herria bere osotasunean hartu behar du. Horregatik behar-beha-rrezkoak dira Komunitate Autonomoko, Nafarroako eta Iparraldeko Administrazio publikoaren arteko akordioak, Euskal herriaren batasun poli-tikoa eta administratiboa egi-ten ez den bitartean. Euskal Herri osoarako plangintza eta politika bakarrik egiterik ez dagoen bitartean, Euskal Herri osoari begiratu behar dio edozein plangintzak».

Bide horretatik, eskabide fun-tsezko bat jarria die EKB-k Dossier berean administrazio publikoari: «Euskal Herriko hiruz «eskualde»tako adminis-trazio publikoek euskararen normalizatzeko akordio minimo batzutura lehenbai-tlehen inistea behar-beharrez-koa da».

HERRI-URRATS 2 egitean,

berriro ere errepikatu eta fin-riku beharrez gaudela eska-bide berbera. Iparraldeko ikastolen lana eta historia aski luzea da: Hegoaldekoen antzera, herriaren ahaleginak, nekeak eta borrokak sortu zi-tuen eta eutsi die orain arte. Ezaguna da, ordea, oraintxe inoiz baino larriago eta es-tuago daudela. Pariseko go-bernuaren laguntza faltaz.

Berriro ere herriaren ekinaz eta indarrak atariko ditugu aurrera euskara eta euskal kultura, administrazio estata-lek nahiz atomizatu horie-muzin egingo dien edo horie-buruz ukur egongo diren bi-tartean. Erreibindikazio eta es-kabide eguna da, ordea, fun-tsean, HERRI-URRATS, administrazio publikoek beren diru-laguntza azkartu eta zabaldu diezaien, herriak aurrera atera dituen eta herri-tarrak diren ikastolei.

Guzti horren gain eska dai-teke elkartasuna, batasuna eta laguntza Iparraldeko ikasto-lerantz. Horren izenean deit-zen ditu EKB-k, SEASKA-re-kin batera, euskaldun guztiak datorren igandean, maiatza-ren 12an, Senperen izan dai-tezen, Iparraldeko Ikastolen jaiak ospatzeko, horien bo-rroko defendatzeko eta horien urratsak egiteko: HERRI-URRATS bizitzeko.

EKB-k, jaialdi horretan parte hartzea deituz, ikas-tolei buruz dossierrean ipini-riku duen eskabide konkretu bat oihukatu nahi du: «Ikas-tolen presupositu (aurrekontu edo buget) orokorra osoki (...) administrazio publikoak bere gain hartzea eta orain arte egindako zorrak kondizio-ga-beki arduratzea...».

HERRI-URRATS. Herri

Eguna! Guztiok Senperera!

EKB  
(Euskarazko Kulturaren  
Batzarrea)

